

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Diputatu Nagusiaren 222/2019 Foru Dekretua, maiatzaren 22koa. Elkarteei eta irabazteko xedirik gabeko erakundeei zuzendutako dirulaguntzen deialdi publikoa onartzea, sentsibilizazioa eta kultura arteko bizikidetzaren sustatzera bideratutako programak edota jarduerak garatzeko. 2019ko ekitaldia

Deialdi honek sentsibilizazioa eta kulturarteko elkarbizitza sustatu nahi ditu Arabako Lurralde Historikoan. Horretarako, honelako ekimenei lagundu nahi die: elkarbizitza kulturala bultzatzen dutenei; elkartzeko eta harremanetan sartzeko gune naturalak sustatzen dituztenei, eta azkenik, xenofobia, arrazakeria edo bazterkeriaren kontrako kanpainak egiten dituztenei.

Anitza, askotarikoa, da gure gizartea; ugariak dira kulturak, ugariak ohiturak eta azturak, ugariak hizkuntzak eta erlijioak. Gizarte modernoa da: immigrazioa gorabehera, nortasunaren ezaugarri da aniztasuna; baina, aniztasuna gorabehera, pertsona guztiok partekatzen dugu oinarrizkoa: giza izaera.

Alde horretatik, ezinbestekoa da harmoniza daitezen ororen eremuak eta baliabideak interpretatzeko eta partekatzeko modu batzuk eta besteak, nahitaezkoa izanik bi norabideko eredu bat erdiestea harremanean, bidea eginez kultur anitzeko jendarte batetik kultur arteko jendarte batera, non ororen onerako profitatuko baitira dohain, ahalmen, tradizio eta ezagutza guztiak.

Ezinbestekoa da ikas dezagun dibertsitatezko inguru honen barruan bizitzen eta harremanetan sartzen, aintzat hartuz bestea, eta saihestuz, prebentzioaren eta ekintzaren bidez, jarrera xenofobo eta baztertzailak sor edo gordindu daitezten. Helburu horretara iristeko, axola handikoa da saihestea eta geraraztea sineskeria eta estereotipoen hedatzea, zeinak sortzen baitira besteak ez ezagutzetik eta haien inguruko aurreiritzietatik, eta mesfidantza eragiten baitute beste jatorri batekoak diren pertsonen aldera.

Langai da kulturartekotasunean sentsibilizatzea. Lan horrek benetako truke guneak sortu behar ditu, elkarren berri izateko guneak, Arabako herritarren artean errespetua eta bizikidetzaren sustatzeko. Horretarako, normalizazioaren alde egin behar da, batzen gaituzten eta komunean ditugun guneak sendotzeko eta bereizten gaituztenak errespetatzeko.

Helburua, ezinbestean, izango da elkarrekiko esperientziak sorraraztea, zeinek eragingo baitituzte elkar aditzea eta elkarrekiko konplizitatea, eta sustatuko baitute, batetik, immigrazioaren pertzepzio egoki bat, eta, halaber, elkarrekiko erantzukizunaren ideia bat, pertsonak beren inguruan elkarrekin armonian bizitzearen aldera, inguru horretan gauzatuko direlarik auzokideen arteko berezko harremanak, eta, bestetik, komunitatea eratzen duten pertsona guztien parte hartze aktibo bat.

Nola orokorrean gero eta gorroto diskurtso eta jarrera xenofobo gehiago dagoen, baldintzak sortu behar ditugu gizarte kohesionatuago baterantz joateko, non batasuna egongo den dibertsitatean, gauza izango dena jabetza sentimendua sortzeko han bizi diren biztanle taldeen artean.

Aniztasunaren kudeaketan zeresan handia du lurraldeko elkarte sareak, zeinek bere egitasmo eta ekimenei bidez lanean diharduen elkarbizitza hobetzen eta kultura arteko eremuan sentsibilizazioa lantzen.

Deialdi honetan aintzat hartuko diren proiektuen oinarri izango dira, besteak beste, berdintasuna eta diskriminaziorik eza, eta, orobat, zeharka, emakume eta gizonen aukera berdinen eta tratu berdinen printzipioa, betiere honako hauek jaulkitako gidalerroei jarraituz: nazioz gaineko organismoek, estatuaren araudiak (3/2007 Lege organikoa, martxoaren 22koa, emakume eta gizonen berdintasun eraginkorrerakoa), Euskal Autonomia Erkidegoko araudiak (4/2005 Legea, otsailaren 18koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoa), Euskal Autonomia Erkidegoko emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako VI. planak eta Arabako emakume eta gizonen berdintasunerako IV. Foru Planak.

Arabako emakumeen eta gizonen berdintasunerako IV. Foru Planak (2016-2020), zeina egungo agintaldia hasi eta urtebete garrenean onartu baitzen –agintaldiko plan estrategikoa onartu eta handik hilabete batzuetara, hain zuzen–, esparru programatiko bat ezartzen du Arabako Foru aldundiaren berdintasunaren inguruko politika publikoak garatzeko, eta, beraz, erakusten du gobernu honek gai horren inguruan hartua duen konpromisoa.

Arlo honetan, ekintzarako erreferentzia berri bat sustatzen da Herritartasunaren, Kulturartekotasunaren eta Immigrazioaren Esparruan Jarduteko V. Plana (2018-2020) 2018ko uztailean onestearen bidez, zeinaren “Bizikidetzaren eremua” izeneko 4.3.3. programazio neurrian xede hau jasotzen baita: “EAEko gizarte osoa sentiberatzea kulturarteko kompetentziak eskuratzearekin zerikusia duen orotan, arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako borrokan, diskriminazioaren eta atzeritar jatorriko pertsonenganako aurreiritzi eta estereotipoen aurkakoan eta hizkuntza dibertsitatean”.

Diputatu Nagusiaren Kabinetearen Zuzendaritzaren 2019ko martxoaren 7an proposamena ikusi da.

Horregatik, eta Diputatu Nagusi gisa dagozkidan ahalmenez baliatuz, honakoa,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onarpena ematea sentsibilizazioa eta kultura arteko elkarbizitza sustatzen dituzten programak eta/edo jarduerak garatzeko irabazteko xederik gabeko elkarte eta erakundeei zuzendutako dirulaguntzen deialdi publikoari -2019ko ekitaldia-, zeinak emakumeen eta gizonen berdintasun arloan indarrean den eta eranskinean jasotzen den araudia aplikatuko baitu.

Bigarrena. Deialdi hori Gizarte Zerbitzuen Sailako Gizarte Sustapenaren Zuzendaritzaren norgehiagoka araubideko dirulaguntzak arautzeko oinarri orokorren (Diputatuen Kontseiluaren maiatzaren 22ko 30/2012 Foru Dekretua, 2012ko maiatzaren 30eko 62. zenbakiko ALHAOn argitaratua) eta Dekretu honetako eranskinean xedatutakoaren arabera arautuko da.

Hirugarrena. Foru Dekretu honek arautzen dituen dirulaguntzak Arabako Foru Aldundiaren 2019 urterako luzatu den 2018 ekitaldiko aurrekontuko 02.1.07 94.00 4.8.1.00.01.1 partidatik (xedapen erreferentzia: 105-2288/000 19.519) ordainduko dira; zenbatekoa: 140.000,00 euro.

Zenbateko hori ehuneko 10ean handitu ahal izango da gehienez ere, kultura arteko sentsibilizazio eta bizikidetzaren programak eta/edo jarduerak garatzeko irabazteko xederik gabeko elkarte eta erakundeentzako diren dirulaguntzen deialdi honi esleitutako urteko zenbateko osoarena.

Laugarrena. Organo eskudunak bidezko den ebazpena hartuko du, organo instruktoreak proposatuta, sei hilabeteko epean gehienez ere, deialdia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Epe horretan esanbidezko ebazpenik ematen ez bada, erakunde interesdunek ezetsitatzeko ahal izango dute eskaera.

Bosgarrena. Diputatu Nagusiaren Kabinetearen Zuzendariari ahalmena ematea foru dekretu hau garatzeko, interpretatzeko eta betearazteko ezinbesteko diren egintzak eta xedapenak emateko, diruz lagundu daitezkeen aurrekontuaren litezkeen birformulazioen onarpena barne.

Seigarrena. Ebazpen honek administrazio bideari amaiera ematen dio eta haren aurka aukerako berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da ebazpena hartu duen organo berean, hilabeteko epean, hura jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 123. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera. Edo, bestela, bi hilabeteko epean, zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, uztailearen 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duenak, 46.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Zazpigarrena. Laguntza eman ala ukatzeko ebazpena Arabako Lurralde Historikoko Aldizkarian (ALHAO) argitaratuko da, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 45. artikuluan xedatutako moduetakoren batean.

Zortzigarrena. Foru Dekretu hau ALHAOn argitaratuko da, eta argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du indarra.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko maiatzaren 22a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZALEZ VICENTE

Diputatu Nagusiaren Kabinetearen zuzendaria

NEKANE ZEBERIO GANZARAIN

ERANSKINA

ELKARTEEI ETA IRABAZTEKO XEDERIK GABEKO ERAKUNDEEI
ZUZENDUTAKO DIRULAGUNTZEN DEIALDI PUBLIKOA, SENTSIBILIZAZIOA
ETA KULTURA ARTEKO BIZIKIDETZA SUSTATZERA BIDERATUTAKO
PROGRAMAK EDOTA JARDUERAK GARATZEKO. 2019KO EKITALDIA

1. artikulua. Gaia eta helburua

Deialdiaren xedea da lehiaketa bidez dirulaguntzak ematea sentsibilizazioa eta kulturarte-kotasuna sustatzeko jarduerak edota programak gauzatzeko, genero ikuspegia kontuan hartuz. Jarduera edo programa horiek irabazteko xederik gabeko elkarteek edo erakundeek sustatu behar dituzte 2019ko ekitaldian, Arabako Lurralde Historikoan eta Trebiñuko Konderrian.

2. artikulua. Aurrekontua izatea, dirulaguntzen zenbatekoa eta muga

Gastu hau Arabako Foru Aldundiaren 2019 urterako luzatu den 2018 ekitaldiko aurrekontuko 02.1.07 94.00 4.8.1.00.01.1 partidaren ("Dirulaguntzak erakunde pribatuei") kontura ordainduko da; zenbatekoa: 140.000,00 euro.

Deialdi honetan, diruz lagundu daitekeen aurrekontu osoa eragiketa hau egitetik lortzen den emaitza izango da: proiektuaren aurrekontu osoa ken deialdi honen arabera diruz lagundu ezin diren gastuak.

Arabako Foru Aldundiko Diputatu Nagusiaren Kabinetearen Zuzendaritzak diruz lagundu daitekeen guztirako aurrekontuaren zenbatekoaren ehuneko 80 finantzatuko du gehienez ere, eta erakunde eskatzaileak gainerako ehuneko 20a jarriko duela bermatu behar du.

Erakunde eskatzaileak bere ekarpena egin ahalko du, modu hauetakoren batean: nola langile boluntarioen balorizazioen bidez, hala bakoitzaren funtsen bidez, beste erakunde pribatu edo publiko batzuetatik eta/edo jarduerak eragindako diru sarrera batzuetatik datozen funtsen bidez, 4. D artikuluan diruz lagundu daitekeen gastutzat hartzen diren partidetakoren batetik egindako ekarpenen bidez, betiere artikulua horretan ezartzen diren mugen barruan.

Langile boluntarioen balorizazioak erakunde eskatzailearen ekarpenaren justifikaziorako baino ez dira kontuan hartuko, eta inolaz ere ezin izango zaizkio egotzi Arabako Foru Aldundiari, ez eta finantzatzen laguntzen duten beste erakunde publiko zein pribatuei ere.

Langile boluntarioen balorizazioaren bidez erakunde eskatzailearen ekarpena egiten bada, aurkeztutako proiektuan jaso beharko da nahitaez, II. eranskinean hari buruzko atala betez. Horrez gain, langile boluntarioen balorizazioaren aurreikuspena azaltzeko idazkia erantsi behar da, jarduera bakoitzerako borondatezko zenbat lanordu egingo diren eta horien kostua zenbat den adieraziz.

Emandako dirulaguntzak ezingo du, inola ere, gaintu ez eskatutako zenbatekoa ez proiektuaren aurrekontuaren ehuneko 80, eta erakunde bakoitzari eman ahalko zaion gehieneko dirulaguntza 8.000,00 euro izango da. Erakunde bakoitzak diruz laguntzeko proiektu bakarra aurkeztu ahalko du.

Nagusiki tokian bertan jarduteko prozesu estrategikoak sortzea helburu duten epe ertain eta luzeko proiektuetarako soilik, dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa 10.000,00 euro izan ahalko da.

Ez dute dirulaguntzarik jasoko, deialdi honetan ezarritakoaren arabera berraztertuta, erakundeko 800,00 euroko dirulaguntzara heltzen ez diren eskaerak.

Diruz lagundu daitekeen aurrekontua doitu behar bada, doikuntza hori egin ahal izateko beste dirulaguntzen edota baliabide publiko zein pribatuen bidez proiektuaren kostua elkarrekin finantzatzea eskatu duen erakundeak ebazpenak Diputatu Nagusiaren Kabinetearen Zuzendaritzari jakinarazi beharko dizkio horiei buruzko Jakinarazpen horrekin batera bidali behar ditu dirulaguntza eman edo ukatu izana egiaztatzen duten agiriak.

Arabako Foru Aldundiak edo beste administrazio batzuek zein nazioko edo nazioarteko beste erakunde publiko edo pribatuek emandako beste dirulaguntza batzuk edo bestelako diru sarrerak jasotzea onartu ahal izango du deialdiak, baldin eta dirulaguntzaren zenbatekoa, bera bakarrik edo beste dirulaguntza batzuekin batera, ez bada diruz lagundu daitekeen aurrekontu osoa baino gehiago.

3. artikulua. Erakunde edota elkarte onuradunak eta bazter utzitakoak

1. Irabazteko xederik gabeko elkarte edo erakunde pribatuak izango dira dirulaguntza hauen onuradunak, baldin eta beren jarduerak deialdi honetan aipatzen diren helburuekin bat etortzen badira.

2. Hurrengo hauek gelditzen dira deialditik kanpo, Gizarte Zerbitzuen Saileko Gizarte Sustapenaren Zuzendaritzak lehiaketa bidez dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileen 4. artikuluan deialditik kanpo utzitakoez gain (maiatzaren 22ko Diputatuen Kontseiluaren 30/2012 Foru Dekretuaren bidez onartu ziren oinarri horiek):

a. Arabako Lurralde Historikoan edo Trebinuko Konderrian egoitzarik edo ordezkartzarik ez duten elkarte edo erakundeak.

b. Jardun eremuan Arabako lurraldea edo Trebinuko Konderria edo Arabako biztanleak edo Trebinuko Konderriko biztanleak sartzan ez dituzten elkarteak edo erakundeak.

c. Indarrean dagoen araudian ezarritakoarekin bat etorritik dagoen erregistroan inskribatuta ez dauden elkarte edo erakundeak.

d. Zuzenean nahiz talde bati lotutako edo talde bereko erakundeen bitartez Arabako Foru Aldundiarekin lankidetzan hitzarmena duten irabazteko xederik gabeko elkarteak eta erakundeak, baldin eta hitzarmen horren helburua deialdi honen xedeari lotutako jarduerak edo programak gauzatzea bada.

e. Dirulaguntza ildo horren aurreko deialdietan emandako dirulaguntzen ondoriozko bete-behar guztiak bete ez dituzten elkarteak eta irabazteko xederik gabeko erakundeak.

4. artikulua. Proiektuen baldintzak. Diruz laguntzeko moduko programak eta gastuak**A) Proiektuen baldintzak.**

Proiektuak egiten, 2019an hasi beharko da, eta 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera kontatu ahalko da proiektuaren hasiera data.

Proiektuak hasita egon beharko du deialdia ebatzi eta hilabete igaro baino lehen.

Proiektua hasteko eguna eta amaitzekoa ez badatoz bat eskabidean jasota daudenekin, erakunde onuradunak Berdintasun, Lankidetzeta eta Kulturartekotasun Zerbitzuari jakinarazi beharko dio aldaketa horren berri.

Proiektuak, gehienez ere, 12 hilabete iraungo du.

Nahitaez ikastetxe, elkarte, udal eta abarrek batera eta/edo elkarlanean planifikatu beharrekoak diren proiektuen baldintza izango da konpromiso-idazki bat aurkeztea proiektua gauzatzen parte hartzeko (eranskinean doa eredu).

Jende guztiak parte hartzekoak diren jarduera diruz lagunduak, Berdintasun, Lankidetzeta eta Kulturartekotasun Zerbitzuak intereseko irizten badie, LAIA Eskolaren urteko programazioaren parte izango dira (LAIA eskola, Arabako emakumeen Jabekuntzarako eta Berdintasunerako Eskola).

B) Diruz lagundu daitezkeen programak.

Helburu hauek dituzten jarduerak eta/edo programek jaso dezakete dirulaguntza:

1. Aniztasuna normaltzeko kanpaina edo ekimen publikoak (herritartasun inklusiboa ikusaraztea eta ahalduz helburu dutenak) eta zaurgarritasun auzi eta egoerei aurre hartzeko eta ekiteko, jarrera eta jokabide baztertzaila eta xenofoboak ezerezteko eta geldiarazteko eta, oro har, bizikidetzeta eta kulturarteko sentsibilizazioa hobetzeko kanpaina edo ekimen publikoak diseinatzea eta garatzea, kontuan izanik emakume eta gizonen egoeren arteko aldea eta batzuen zein besteen beharrak.

2. Estrategiak eta prozesuak bultzatzea gizarte kohesioari buruz, kulturen arteko elkarbizitza eta elkarbizitza buruz, eta topaketarako eta harremanetarako espazio naturaletan kulturartekotasuna eta dibertsitatea faboratzen duten programak garatzeko.

3. Aniztasuna kudeatzeko jardunbide egokien identifikazioa, transferentzia eta garapena sustatzea eta kulturen artean tartekari lanak egingo dituzten ekintzak eta immigrazioari lotutako aurreiritzi, zurrumuru eta estereotipoei aurre egiteko neurriak bultzatzea.

C) Diruz lagundu ezin daitezkeen programak.

Ondorengo hauek ez dira diruz lagunduko:

1. Atzerritarrentzako baino pentsatu ez diren proiektuak; argi jaso beharko da proposatutako eskuhartzeen noranzko bikoak direla eta haien azken helburua egiazko kulturartekotasuna dela.

2. Pertsonen edota gizarte erakundeen egoera edo inguruabarrak hobetzeko ekintzak proposatzen dituzten proiektuak. Proiektuen xedea komunitatea, herritarren multzoa, auzo... izan behar da.

3. Egiazko kulturarteko sentsibilizazioa edota bizikidetzeta lortzeko estrategiak edo metodologiak jaso barik honako jarduerak jaso dituzten proiektuak: hizkuntzak ikastea edo praktikatzea, eta haur edo gazteen eskola laguntza eta kultura edota aisia eta aisialdi ekimenak.

4. Zuzenean edo zeharka eremu soziosanitarioari eta prestakuntza eta lan eremuei lotutako proiektuak (besteak beste, gaikuntzarako edota gizarteratze eta laneraterako ikastaroak, tailerak, etab., informazio baliabideak/zerbitzuak, prestakuntza edota gizarte eta lan laguntasuna edota aholkularitza, lan bazterkeriako kasuetan proposatutako eskuhartzeak, etab.).

5. Gizarte Zerbitzuen Saileko Gizarte Sustapenaren Zuzendaritzak lehiaketa bidez emango dituen dirulaguntzak arautzen dituzten oinarri orokorretako 16. artikulua arabera, justifikazio atalean (II. eranskinaren 1. puntu) genero ikuspegia sartzen ez duten proiektuak. Horren barruan jaso behar da emakumeen eta gizonen premia eta egoera espezifikoan azterketa berezia eta proiektuak berdintasunean aurrera egiteari egingo dion ekarpena.

6. Aurrekontuan inprimakiko (II. eranskina) 3. atala ondo xehatuta aurkeztu ez edota irizpide honetan punturik lortu ez duten proiektuak.

7. Mintegiekin, hitzaldiekin, jardunaldiekin, kongresuekin eta/edo antzeko ezaugarriak dituzten ekimenekin lotutako jarduerak. Salbuespena izango dira profesionalizatuak edo adituak ez direnei zuzendutakoak eta/edo interes edo garrantzi bereziko errealitateetan eragina izan nahi dutenak, bai ekimenaren gaiagatik, bai xedetat duten kolektibo bereziari egingo dioten mesedeagatik. Salbuespen hori aplikatu dakion nahi duen erakundeak justifikatu egin beharko du II. eranskinean (proiektuaren inprimakia).

D) Diruz lagundu daitezkeen gastuak.

1. Diruz lagundu ahal diren gastutzat jotzen dira diruz lagundutako jardueraren izaeraren ondoriozkoak direnak inolako zalantzarik gabe, behar-beharrezkoak direnak eta proiektua gauzatzeko epean gauzatu direnak.

2. Dirulaguntza lortzeko eta justifikatzeko, diruz lagundu daitezke gastu hauek:

a) Material suntsigarriak eragiten dituen gastuak.

b) Bidaiek eta egonaldiek eragiten dituzten gastuak:

Joan-etorrietako gastuei dagokienez, ahal dela, garraio publikoa erabiliko da. Garraio pribatua erabili behar bada, kilometro bakoitzeko 0,29 euroko muga ezarri da.

c) Kontratazioek (proiektua zuzenean burutzeko kontratatzen diren profesionalak, soldatapeko langileak eta bestelakoak –enpresak, elkarteak–) eragiten dituzten gastuak:

Kontratazio baten gastuak dirulaguntzarako onartzeko ezinbestekoa da xedea kontratatzen den pertsona edo erakundea proiektuan aritzea izatea. Kontratazioaren inguruko koordinazioak edota administrazioak erakundeari eragiten dizkion gastuak ez dira sartuko kontratazio gastuetan.

Lantegiak eta ikastaroak egiteko kontratazioen gastuetan, bai eta bakarriketa, mintegi, hitzaldi edota antzeko beste ekimen batzuk egiteko kontratazioen gastuetan ere, dirulaguntzarako gehienez 110,00 euro onartuko dira orduko (zergak eta gizarte segurantzaren barne): Gehieneko zenbateko horretan jarduerako joan-etorriak eta jardueraren koordinazioa, prestakuntza, burutzapena eta ebaluazioa sartuko dira. Jarduera profesionalentzat bada, ezin du iraun 8 ordu baino gehiago; bestelakoentzat bada, ezin du iraun 16 ordu baino gehiago.

Behin baino sarriagotan egiten bada lantergi zein ikastaro berdina proiektua gauzatu beharreko aldi, jarduerak irauten duen ordu bakoitzeko gehienez ere diruz lagundu daitezkeena ehuneko 25 jaitsiko da, lehenengo jardueran jada aplikatutakoarekin erkatuta.

Organo kudeatzaileak aurrean azaldutako dirulaguntza mugak betetzen direnez egiaztatu ahal izan ditzan, erakunde eskatzaileak aurkezten duen proiektuan jarduerak zenbat ordu iraungo duen zehaztu beharko du, xehatuta, bai eta orduko zenbat diru eskatzen duen ere (zergak barne).

Halaber, antzerki eta musika ekitaldien eta antzekoen kontratazio gastuak direla eta, dirulaguntza 900,00 eurokoa izango da gehienez (zergak barne).

d) Publizitatearen gastuak.

e) Langile boluntarioen balorizazioa:

Eskatzailearen ekarpena justifikatzeko bakarrik hartuko da kontuan; dirulaguntzarako gehie-
nez 20,00 euro onartuko dira orduko.

f) Gastu orokorrak edo zeharkakoak:

Proiektuaren zuzeneko kostuen gehiezez ehuneko 10 lagundu ahal izango da diruz, justifi-
katu beharrik gabe. Hortik kanpo geratzen da langile boluntarioen balorizazioa.

Gastu orokorren barruan sartuko dira diruz lagundutako jarduerarekin lotura zuzena ez
duten elektrizitate, berogailu, ur, telefono, alokairu eta zerbitzu orokorren gastuak, egitura kos-
tuei dagozkienak, eta abar. Kontzeptu horretan sartuko dira, halaber, dirulaguntza jaso duen
erakundearen koordinazioaz edota administrazioaz arduratu diren langileen gastuak.

g) Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialen erabilerari buruz ezarritakoa betetzeak
erakunde onuradunei eragiten dizkien gastuak.

h) Balio erantsiaren gaineko zerga (BEZ), baldin eta erakundeak ezin badu berreskuratu.

Aparteko kasuetan, jarduera berezi jakin batzuen dirulaguntzetan (izaera, metodologia,
berrikuntza edota espezializazio berezia) puntu honetan azaltzen diren mugak gainditu ahal
izango dira. Salbuespenak: langile boluntarioen balorizazio gastuak eta proiektuaren gastu
orokorrak edo zeharkakoak. Salbuespentzat jotzeko eta Balorazio Batzordeak hala dela
onartzeko, hala badagokio, erakunde eskatzaileak salbuespen izaera hori behar bezala justifi-
katu beharko du II. eranskinean (proiektuaren inprimakia).

3. Honako hauek ez dira diruz lagundu daitezkeen gastuen artean sartuko: suntsigarria ez
den materiala, bazkariak, opariak eta antzekoak.

Baldin erakunderen batek aurreko urteko deialdira proiekturen bat aurkeztu badu eta lite-
keena bada oraingo deialdira aurkeztutakoarekin batera gauzatzea denboran, horren berri eman
beharko da II. eranskineko erantzukizunpeko adierazpena beteta, zeinetan jasoko baita denboran
aldi berean egiten diren ekintzak proiektu desberdinetakoak direla eta, beraz, ez dutela aldundi
honen gehiegizko finantziatorik jasoko.

Beraz, aurreko deialdian gauzatu eta aurkeztutako faktura edo gastu bat, nahiz eta Arabako
Foru Aldundiaren ehuneko 100eko dirulaguntza jaso ez, ezin izango da justifikazio gisa erabili
deialdi honetan.

4. Proiektu baten barruan Diputatu Nagusiaren Kabinetearen Zuzendaritzaren iritziz deial-
diaren xedea behar bezainbat aldeztan ez duen jarduketarik egonez gero, dirulaguntzaren
kalkulutik baztertu daiteke.

5. Diruz lagundu daitekeen aurrekontuaren ehuneko 100eraino azpikontratatzeari baimendu
ahalko da, dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 27. artikuluan ezarritako beteki-
zunak betez gero. Entitate onurduen loturiko pertsona edo entitateekin egitea hitzartu ahalko
du, baldin eta inguruabar hauek gertatzen badira:

1. Kontratazioa merkatuko baldintza arrunten arabera egitea.

2. Aldez aurretik organo emailearen baimena jasotzea, oinarri arautzaileetan ezarritako
moduan (II. eranskinean jasotako eskaera ereduaren arabera)

5. artikulua. Eskabideak aurkeztea

Eskabideak eta deialdi honen seigarren artikuluan zehazten diren agiriak aurkezteko ho-
geita hamar egutegi-egun egongo dira, deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean
zenbatzen hasita.

Eskabideen jasotzailea Diputatu Nagusiaren Kabinetearen Zuzendaritza izango da. Eskabi-
deen ereduak deialdi honen I eta II. eranskinetan jasoko dira, baita Arabako Foru Aldundiaren
web orrian (www.araba.eus) ere.

Dirulaguntzen eskaerak Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean (Probintzia plaza, 5, Gasteiz) aurkeztu behar dira, Arabako Foru Aldundiaren beste Erregistroetan eta itundutako udalen Erregistro Orokorretan.

Hori guztia, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 6. artikuluan xedatutakoaren kalterik gabe.

6. artikulua. Agiriak

Eskabidearekin batera ondoko agiriak aurkeztuko dira:

a) Eskaera sinatzen duen pertsonaren NANaren fotokopia eta erakunde edo elkarte eskatzailearen ordezkaritzan ari dela frogatzen duen agiria.

b) Erakunde eskatzailearen IFKren fotokopia eta Araban edo Trebiñuko Konderrrian egoitza edo ordezkaritza irekita daukala frogatzen duen agiria.

c) Erakundeak indarrean dituen estatutuen fotokopia eta Elkarte eta Erakundearen Erregistroan legez eratu eta erregistratuta dagoela egiaztatzen duen dokumentazioa.

d) Elkarte edo erakunde eskatzailearen zuzendaritza batzordearen osaketaren aktaren fotokopia.

e) Eskabidearen inprimakia, I. eranskinari jarraiki.

f) Proiektuaren inprimakia, II. eranskinari jarraiki.

g) Baldin eta beste dirulaguntza publiko eta/edo pribaturen eskatu bada, haien egiaztagiria aurkeztu behar dira zenbat diru eskatu den adieraziz.

h) Egoitza nagusia Arabako Lurralde Historikotik kanpo duten erakundeek dagokien Zerga Ogasunarekin dituzten zerga betebeharrak bete dituztela azaltzen duen ziurtagiria aurkeztu behar dute.

i) BEZa ordaintzetik salbuetsita daudela azaltzen duen ziurtagiria aurkeztu behar dute, dagokien zerga administrazioak emana, eta Balio Erantsiaren gaineko Zergan (BEZa) lainaren erregelari daudenek, portzentajearen justifikazioa.

j) Hala badagokio, erakunde publiko edota pribatuen lankidetzak konpromisoaren idazkia (eredua II. eranskinean).

k) Hala badagokio, kontratazio gastuen aurreikuspenaren azalpen idazkia (eredua II. eranskinean).

l) Hala badagokio, azpikontrataziorako baimen eskaera (eredua II. eranskinean).

m) Hala badagokio, joan-etorrien gastuen aurreikuspenaren azalpen idazkia (eredua II. eranskinean).

n) Hala badagokio, langile boluntarioen balorizazio aurreikuspenaren azalpen idazkia (eredua II. eranskinean).

ñ) Egoki bada, erakundearen erantzukizunpeko adierazpena, 2017an diruz lagundutako ekintzak eta 2018an proposatutako ekintzak aldi berean egiteari buruzkoa (II. eranskinean jasotako eredua).

Aurkeztutako eskaera egoki baloratu eta ebazteko, Arabako Foru Aldundiko Diputatu Nagusiaren Kabinetearen Zuzendaritzak agiri eta informazio gehiago eska diezaieke erakunde eskatzaileei

Administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenaren urriaren 1eko 39/2015 Legeak 53. artikuluan xedatutakoaren arabera, baldin eta eskatutako agiriak jada Arabako Foru Aldundiak badauzka, esan behar da non eta noiz aurkeztu ziren.

7. artikulua. Izapideak eta Balorazio Batzordea

Arabako Foru Aldundiko Diputatu Nagusiaren Kabinetearen Zuzendaritzako Berdintasun, Lankidetzeta eta Kulturartekotasun zerbitzuak izango du prozedura izapidetzeko eskumena.

Eskaerak balorazio batzorde batek aztertuko ditu. Haren kideak izango dira Diputatu Nagusiaren Kabinetearen zuzendaria, edo hark eskuordetutako pertsona, Berdintasun, Lankidetzeta eta Kulturartekotasun Zerbitzuaren burua, Diputatu Nagusiaren Kabinetearen Zuzendaritzari atxikitako kulturartekotasun teknikari bat eta Diputatu Nagusiaren Kabinetearen Zuzendaritzako administrazio orokorreko teknikari bat, idazkari lanak egingo dituen eta ahotsa bai, baina botorik izango ez duena. Batzorde horretako kide batek gutxienez emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko ezagupenak edota haren aplikazio praktikoko esperientzia izango ditu.

8. artikulua. Deialdiaren ebazpena

1. Organo eskumendunak eman beharreko ebazpena emango du, organo instruktoeak proposatuta, sei hilabeteko epean gehienez ere, deialdia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Gehienezko epea igarota esanbidezko ebazpenik ez bada egon, eskaerari ezezkoa eman zaiola ulertuko du erakunde interesdunak.

2. Dirulaguntzak emateko ebazpenean oinarri arautzaileak eta deialdiaren baldintzak betetzen direla aipatuko da arrazoen azalpenean; gainera ondoko datuak argitu behar ditu:

a) Zein diren dirulaguntza jasoko duten erakunde onuradunak (zerrendan bakoitzaren zenbatekoa zehaztuko da); dirulaguntza jaso ez dutenei dagokienez, batetik azalduko da zeintzuen eskaera ezetsi den eta bestetik zeintzuek ez duten jasoko dirua uko egin diotelako edo proiektua ezin burutu dutelako.

b) Lagundutako proiektuaren izena eta lagundu daitekeen aurrekontua.

3. Kontuan izanda urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 45. artikuluan xedatutakoa, dirulaguntza eman edo ukatzen duen ebazpena ALHAOn argitaratuko da, eta jakinarazpen ondorioak izango ditu horrek.

4. Ebazpen honek administrazio bideari amaiera ematen dio eta haren aurka aukerako berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da ebazpena hartu duen organo berean, hilabeteko epean, hura jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 123. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera. Edo, bestela, bi hilabeteko epean, zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duenak, 46.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

9. artikulua. Eskabideak baloratzeko irizpideak eta haien haztapena

Ondoko irizpideak aplikatuko dira:

1. Aurkeztutako proiektuaren justifikazioa (gehienez, 5 puntu):

Proiektua dagokion lurraldeko udalean edo udaletan dauden testuinguruaren eta errealitatearen azalpen argia eta laburra, eta azaldutako premia konpontzeko edo hobetzeko ekarpena. Genero ikuspegia kontuan hartu behar da, gutxienez puntu honetan, 4. artikuluan adierazi legez.

2. ALHko landa zonan epe ertain eta luzeko iraunkortasuneko prozesu estrategiko eraldatzaileak sortzea helburu duten proiektuak (gehienez, 5 puntu):

Proiektu bat diseinatzea, jomuga duena espazio jakin batean emaitza zehatz bat lortzea, prozedura sistematizatuak denboran ondoz ondoko fase edo etapaka antolatzearen bidez. Landa zonan kokatutako prozesua, jatorria tokian bertan duena eta tokiko eragileen presentzia eta inplikazioa dituen (politikariak, teknikariak eta/edo herritarrak).

3. Proiektuaren kalitate teknikoa (gehienez, 23 puntu):

Proiektuaren justifikazioaren, duen helburuaren, metodologiaren, planifikatutako jardueren eta aurreikusitako jarraipenaren eta ebaluazioaren arteko lotura. Proiektuaren koherentzia orokorra (gehienez, 6 puntu).

Jardueren zehaztasun, argitasun, xehetasun eta plangintza maila. Halaber, berdintasuneko jarduerak egiteari buruzko edukiak edo metodologiak biltzea baloratuko da (gehienez, 6 puntu).

Proiektuaren interesa. Proiektua helburu orokorreari eta diruz lagundu daitezkeen programei zein mailatan egokitzen zaien. Diputatu Nagusiaren Kabinetearen Zuzendaritzak proiektuari interes berezikoa iriztea (gehienez, 6 puntu).

Proiektuaren berrikuntza maila. Proiektua orokorrean berritzailea izatea edota metodologiari, baliabide edo materialei, ekintzei, hedapenari edo berritzailetzat jo daitezkeen beste edozeini lotutako elementu berritzaileak proiektuaren faseetan sartuta izatea (gehienez, 5 puntu).

4. Proiektuaren aurrekontua (gehienez, 5 puntu):

Aurrekontuaren xehetasuna, zehaztasun maila eta proiektuari egokituta egotea, azkenari dagokionez, oinarri orokorretan Diputatu Nagusiaren Kabinetearen Zuzendaritzaren esleipeneko eta erabilerako eraginkortasunari lotuta jasotako printzipioari jarraituz.

5. Proiektuaren eragina (gehienez, 14 puntu):

Hartzaileen ezaugarriak eta kalkulaturako parte hartzaileen kopurua; gerturatzeko eta zabalatzeko prozedura; berdintasunaren eremuan egiteko asmoa dagoen aurrerapenak; sareko lana (gehienez, 6 puntu).

Proiektua Gasteiz ez den herri batean eta Gasteizko Kuadrilla ez den beste batean gauzatzea (gehienez, 8 puntu):

– Gasteiz ez den udalerrri batean eta Gasteizko Kuadrilla ez den kuadrilla batean gauzatzea osorik: 8 puntu.

– Gasteiz ez den udalerrri batean eta Gasteizko Kuadrilla ez den kuadrilla batean gauzatzea nagusiki, eta, era subsidiarioan, Gasteizen edo Gasteizko Kuadrillan: 5 puntu.

– Gasteizen edo Gasteizko Kuadrillan gauzatzea nagusiki, eta, era subsidiarioan, landa eremuan: 0 puntu.

6. Proiektuan genero berdintasunaren ikuspegia jasotzea (gehienez, 3 puntu):

Aurreko 2. eta 4. puntuetan adierazitakoaz gainera, proiektu osoan genero berdintasunaren ikuspegia nola txertatu den baloratuko da (datuak sexuen arabera banatuta, hizkera inklusiboa, proiektuan parte hartzen duten pertsonen genero prestakuntza, etab.) eta arreata berezia emango zaie sexuen araberrako rolei eta estereotipoei.

7. Elkartearen zuzendaritza batzordearen ehuneko 50, gutxienez, emakumeak izatea (2 puntu).

8. Deialdian eskatzen diren agiriak aurkeztea eta baldintzak betetzea zuzenketarik egin gabe (2 puntu).

9. Erakundeak Arabako Lurralde Historikoan eta Gasteizko hiriburutik kanpo duen egoitza nagusia (5 puntu).

Proiektu batek dirulaguntza jaso ahal izateko puntuazio posible osoaren ehuneko 50 lortu behar du gutxienez.

Irizpide bakoitzean gehienez lor daitezkeen puntuaziotik lortutako puntuak batu egingo dira eta dirulaguntza eman aurretik, aurkeztutako eta onartutako eskaerak alderatuko dira, horien arteko hurrenkera bat ezartze aldera. Hurrenkera hori puntuen araberrakoa izango da eta dirulaguntzak hurrenkera horren araberrakoa esleituiko dira, puntu portzentaje gehien dituen eskaeratik hasi eta gutxien dituen eskaerara, aurrekontua bukatu arte.

Eskuragarri dagoen aurrekontua agortzen duten puntuazio portzentajearen azken tartean dauden eskaerei dagozkien dirulaguntzen zenbatekoak honela kalkulatu dira: gerakina hainbanatuz, diruz lagundu daitekeen proiektu edo jarduera bakoitzaren dirulaguntza jaso dezakeen aurrekontuaren arabera.

10. artikulua. Gastuak justifikatzea. Epealdi eta erakunde onuradunek aurkeztu beharreko agiriak

Proiektuaren gastuen azken frogagiriak –hau da, diruz lagundu ahal den aurrekontuaren guztizkoari dagozkionak– aurkezteko 30 egun baliodun izango dira, proiektua amaitu eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta.

Salbuespenez, eta aurkezturiko amaierako justifikazioan ez bada egiaztatu egindako gastuen ordainketa dirulaguntzaren ehuneko 20koa edo gutxiagokoa izan dela, ordainketa haien egiaztagiriak dirulaguntza jaso eta hilabeteko epean aurkeztu beharko dira.

Dirulaguntzak jasotzen dituzten erakundeek, justifikazio agiri horiek aurkeztu beharko dituzte Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean (Probintzia plaza 5, Vitoria-Gasteiz), aldundiaren beste erregistro batzuetan edo hitzartutako udaletako erregistro orokorretan.

Hori guztia, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 6. artikuluan xedatutakoaren kalterik gabe.

Dirulaguntzak jasotzen dituzten erakundeek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

1. Dirulaguntza jaso duen proiektuaren burutzapen gradua justifikatzen duen jarduketa memoria. Justifikazio inprimakia oso-osorik bete behar da nahitaez, honekin batera doan III. eranskinaren arabera.

2. Proiektuaren gastuak eta sarrerak modu erraztuan justifikatzen dituen memoria ekonomikoa. Justifikazio inprimakia oso-osorik bete behar da nahitaez, honekin batera doan III. eranskinaren arabera.

Memoria horrekin batera nominak, fakturak eta proba gisa antzeko balioa duten bestelako agiriak aurkeztu behar dira, eta horiei dagozkien ordainagiriak ere bai.

Dirulaguntza jaso duen proiektuak beste finantzaketa iturriren bat eduki badu, aurkeztu diren nominak, fakturak eta gainerako agiriak zigilu batez markatuko dira Berdintasun, Lankidetzeta eta Kulturartekotasun Zerbitzuan dirulaguntza jaso duen proiektuaren justifikaziorako egozten den zenbatekoa adierazteko.

Aurkeztutako dokumentazio guztiak jatorrizkoa izan behar du edo, bestela, fotokopia konpultsatua aurkeztu behar da, eta guztira, diruz lagun daitekeen aurrekontuaren zenbatekoaren berdina edo gehiagokoa izan beharko du.

Faktura elektronikoak aurkeztuz gero, Factura-e motako estandarretara egokitu beharko da haien formatua. Sinadura elektronikoa duen beste edozein agiri aurkeztekotan, konfiantzazko zerbitzu elektronikoaren emaile kualifikatuen konfiantzazko zerrendan jasotako ziurtagiriak onartuko dira (<http://sede.minetur.gob.es/Prestadores>)

2.1. Langileen gastuen justifikazioa:

Soldatapeko langileak edota profesionalak kontratatzeak eragiten dituen gastuen justifikazioa eta ordainagiriak nahitaez aurkeztu behar dira.

Soldatapeko langileen gastuei dagokienez, erakundeak kontratatutako pertsonen jatorrizko nominak -edo fotokopia konpultsatuak- aurkeztu beharko dira beti, proiektuari atxikita egon diren aldikoak hain zuzen. Horien ordainagiri gisa honako hauek onartuko dira:

– Jatorrizko nominak, langileak sinatuta.

– Langileak izenpetutako jatorrizko idazkia, non agertuko baita langileak kobratu egin duela eta kobratutakoa zein hilabetekoa den.

– Nominen ordainketa multzokatuaren jatorrizko banku laburpena eta horrekin batera, enpresa/erakunde onuradunaren ziurtagiria, langileen nominak transferentzia horren kontra ordaindu direla zehazten duena eta langile bakoitzari aurkeztutako hilabete bakoitzeko zein kopuru dagokion adierazten duena.

Horrez gain, aurkeztu beharko dira nahitaez Gizarte Segurantzaren TC1 eta TC2 ereduak, eta bidezko kotizazioen ordainketaren laburpena.

Soldatapeko langileen gastuen eta profesionalen egindako fakturen kasuan, 110 ereduak eta bankuaren ordainagiria erantsi beharko dira gastuen frogagiri gisa Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren kontura atxikitako zenbatekoak sartu direla frogatzeko, bai eta, beren zergak Arabako Ogasuna ez den beste administrazioen batean ordaintzen dituzten erakundeak badira, 190 ereduak ere, gastuen frogagiri gisa aurkeztutako nominei edota fakturei buruzkoa.

2.2. Beste gastu batzuen justifikazioa:

Soldatapeko langileen edota profesionalen gastuak ez besteak direla eta, ondoko agiriak baino ez dira aurkeztu behar: hornitzaile baten fakturak edo antzeko agiriak (jatorrizkoak zein fotokopia konpultsatuak), banaka zein multzoan 500,00 eurotik gorako zenbatekoa jotzen dutenak (BEZa aparte), eta beraien ordainagiriak.

Aurrekoa gorabehera, zuzendaritza honek laginketa tekniken bidez berak hautatzen dituen agiriak, nahitaez aurkeztu behar izan ez direnak, eskatu eta egiaztatu ahal izango ditu. Horretarako hautatutako gastuen frogagiriak bidaltzeko eskatu ahal izango dio erakunde onuradunari.

Ez dira onartuko ondoko datuak argi eta garbi azaltzen ez dituzten fakturak ez antzeko agiriak:

- Eman duen pertsona edo erakundea: izena edo sozietatearen izena eta NAN edo IFZ.
- Hartu duen pertsona edo erakundea: izena edo sozietatearen izena eta NAN edo IFZ.
- Gastuaren xedea.
- Data.
- Fakturaren zenbakia.

Fakturak ordaindu direla frogatzeko agiri hauek onartuko dira:

– Bankuko jatorrizko ziurtagiria. Bertan ageriko dira, gutxienez, zenbatekoa, data eta ordainketaren edo transferentziaren erakunde onuraduna. Ziurtagiri hori izenpetuta aurkeztuko da edota bankuaren zigilua duela.

– Faktura luzatu duen erakundeak sinatutako edo/eta zigilatutako ziurtagiria, jatorrizkoa. Bertan fakturaren zenbakia, zenbatekoa eta ordainketa data ageriko dira.

– Posta arruntez jasotako jatorrizko banku laburpenak.

